

Oharra:

Honako dokumentu hau Eusko Jaurlaritzak itzuli du euskarara eta Europako erakundeek, beraz, ez dute horretan erantzukizunik.

Nota:

La traducción de este documento al euskera ha sido realizada por el Gobierno Vasco y no compromete la responsabilidad de las Instituciones europeas..

KONTSEILUAREN ONDORIOAK

2005eko ekainaren 13koak

Kontseiluan eta, hala badagokio, Europar Batasuneko beste erakundeetan eta organoetan beste hizkuntza batzuk ofizialki erabiltzeari buruz (2005/C 148/01)

(Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala C 148, 2005/06/18)

1. Hizkuntzei buruzko ondorio hauek Kontseiluaren 1/1958 Araudian aipatzen diren hizkuntzak ez, beste batzuei buruzkoak dira, hain zuzen ere estatu kide bateko Konstituzioan lurralde osorako edo zati baterako estatus jakin bat aitortuta izan eta hizkuntza nazional gisa erabiltzeko legezko baimena dutenei buruzkoak.
2. Kontseiluak uste du Europar Batasuna herritar guztiei gerturatzeko egin diren ahaleginetan gehiago azpimarratu behar dela Batasunak hizkuntza arloan duen aberastasuna.
3. Kontseiluaren iritziz, herritarrek erakundeekin dituzten harremanetan beste hizkuntza batzuk erabiltzeko aukera izatea garrantzitsua da, Europar Batasuneko proiektu politikoarekin duten identifikazioa indartzeko.
4. 1. puntuan aipatutako hizkuntzak modu ofizialean erabili ahal izango dira Kontseiluan. Horren oinarrian Kontseiluaren eta hizkuntza erabiltzeko eskatu duen estatu kidearen arteko administrazio-akordioa egongo da. Bestela, berriz, Batasuneko beste erakunderen edo organoren batekin egindako antzeko administrazio-akordioa egongo da.
5. Akordio horiek Itunaren eta Ituna betearazteko hartutako xedapenen arabera egingo dira, eta ondoren adierazten diren baldintzak bete beharko dituzte. Europar Batasuneko erakundeek eta organoek administrazio-akordio horiek ezartzean izandako zuzeneko edo zeharkako gastuak zerbitzua eskatu duen estatu kidearen kargu izango dira.

a) *Europako Parlamentuak eta Kontseiluak elkarrekin erabakita adostutako ekintzak argitaratzea*

Estatu kide bateko Gobernuak Europako Parlamentura eta Kontseilura elkarrekin erabakita adostutako ekintzen itzulpen ziurtatua bidali ahal izango du 1. puntuan aipatutako hizkuntzaren batean. Kontseiluak bere agiritegian gordeko du itzulpen hori eta norbaitek eskatuz gero, kopia bati gorriko dio. Kontseilua arduratuko da itzulpen horiek bere web gunean argitaratzeaz. Itzulpen horiek ez dutela inolako balio juridikorik adieraziko da kasu bietan.

b) *Kontseiluaren bilkuretan, eta, hala badagokio, Europar Batasuneko beste erakunde eta organoetan hitz egitea*

Estatu kide bateko Gobernuak, hala behar izanez gero, Kontseiluari eta, hala badagokio, beste erakundeei edo organoei (Europako Parlamentuari edo Eskualdeetako Lantaldeari) eskatu ahal izango die erakundeotan hitz egitean (interpretazio pasiboa) 1. puntuan adierazitako hizkuntzaren bat erabiltzeko aukera izatea, hain zuzen ere kasuan kasuko erakunde edo organoko kideren batek bilkuraren batean hala egitea erabakitzen baldin bada. Kontseiluaren kasuan, besterik esaten ez bada, eskariari bidea emango dio, garaiz eskatu baldin bada eta behar diren bitartekoak baldin badaude, langileei eta ekipoei dagokienean.

c) *Europar Batasuneko erakunde eta organoekin izan beharreko idatzizko komunikazioak*

Estatu kideek egintza juridiko baten bidez zehaztu ahal izango dute, herritarren batek Batasuneko erakunde edo organo bati 1. puntuan adierazitako hizkuntzaren batean komunikaturen bat igorri nahi izanez gero, estatu kide horretako Gobernuak izendatutako organo batera igorri beharko duela komunikazioa. Organo horrek igorriko dio dagokion erakundeari edo organoari komunikazio-testua itzulpenarekin batera. Itzulpena Kontseiluko 1/1958 Araudian estatu kide horrentzat zehaztutako hizkuntzan egongo da. Prozedura bera erabiliko da, *mutatis mutandis*, dagokion erakundeak edo organoak emandako erantzunean ere.

Batasuneko erakundeak edo organoek erantzuteko epe baten zain egon beharra dutenean, epe hori kontatzen hasteko eguna honakoa izango da: Kontseiluko 1/1958 Araudian adierazitako hizkuntzaren batean estatu kideak erakundeari edo organoari igorritako itzulpena jasotako eguna. Epea eten egingo da Batasuneko erakundeak edo organoak estatu kideko eskumendun organoari hizkuntza horretan erantzuna igortzen dionean.

Kontseiluak beste erakunde guztiak gonbidatu nahi ditu oinarri honen gainean administrazio-akordioak egin ditzaten.